

Behin-betiko ebazpena, Lanbide Heziketa sailburuordearena, zeinaren bidez egiaztatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan funts publikoen bitartez finantzatzen diren unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleek lortutako kompetentzia digitala Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak xede horretarako antolatutako prestakuntza-jarduerak gauzatu.

Ebaluazioko eta Lurralde Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko uztailaren 1eko Ebazpenak «Irakasleen kompetentzia digitala ziurtatu, egiaztatu eta aitortzeari buruzko Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren Erabakia» argitaratzen du, eta seigarren puntuari ezartzen du ezen hezkuntza-administrazioetako unitateek izango dutela, beren eskumenen esparruan, irakasleen kompetentzia digitala egiaztatzeko araudia onartzeko ardura, ebazpena BOEn argitaratzen denetik (22/07/12) urtebeteko epean.

Hezkuntza-administrazio honi dagokio araudia garatzea, eta bete-betean dihardu irakasleen kompetentzia digitala egiaztatzeko prozedura arautzeko izapideak egiten.

Nolanahi ere, kompetentzia horien egiaztapena ahal beste aurreratzeko eta arintzeko, ebazpen hau ematen da, ofizioz egiaztatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan funts publikoen bitartez finantzatzen diren unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleen kompetentzia digitala, gaindituta dituzten heinean Lanbide Heziketako Sailburuordetzak eskainitako prestakuntza-jarduera jakin batzuk, curriculum berria eratzera bideratuta daudenak, zeinak barnean hartzen baititu irakasleen kompetentzia digitalak, irakasleen kompetentzia digitalen mailak egiaztatzen dituen Irakasleentzako Kompetentzia Digitalen Esparruaren arabera.

Ebazpen honek zorrotz jarraitzen dio administrazio-jardunaren legezotasunaren printzipioari, eta, hala, zehatz-mehatz betetzen du erregulazio horrek izango duen edukia eta, bereziki, Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren Erabakia, zeinak I. eranskinean zehazten baititu egiaztapena egiteko baliatu ahal izango diren prozedurak, jasota geratuko direnak hezkuntza-administrazio honek etorkizunean egingo duen arau-garapenean. Egiaztapen hau, bada, bat dator Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren Erabakiaren xedapenekin, eta bat etorriko da, halaber, gerora emango den erregulazioarekin.

Azkenik, ebazpen honek doi-doi betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak, 39/2015 Legean jasoak (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena), bai, orobat, beste printzipio hauek ere: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia; izan ere, ebazpenaren helburua interes orokorrekoa da, egonkortasuna eta jarraipena ematen baitizkio irakasleen kompetentzia digitala egiaztatzeko prozedurari, Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren Erabakian jasotako moduan (2022ko uztailaren 12ko BOE), eta zorrotz betetzen du aipatutako legearen 129. artikuluan ezarritako agindua; horrela, bada, ez dago eskubideak gutxiago murrizten dituen beste aukera arautzailerik, ordenamendu juridikoarekiko koherentziari eusten dio eta baliabide publikoak eraginkorrago kudeatzea ahalbidetzen du.

Azaldutakoagatik, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuan aurreikusitakoarekin bat etorriko da (2021eko martxoaren 5eko EHAA, 47. zk.) eta eman zaizkidan ahalmenak baliatuz, honako hau.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa

Ofizioz egiaztatzea Euskal Autonomia Erkidegoan funts publikoen bitartez finantzatzen diren unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleen kompetentzia digitala, maila bakoitzean Irakasleen Kompetentzia Digitala lortzeko Hezkuntza Sailak ezarritako prestakuntza gainditu dutenei.

Zehazki, irakasleen kompetentzia digitalaren A1, A2 eta B1 mailak egiaztatzen dira, prestakuntza-jarduera hauetan, indarrean dagoen Irakasleen Kompetentzia Digitalaren Erreferentzia Esparruan oinarrituta, zeina Ebaluazioko eta Lurralde Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko maiatzaren 4ko Ebazpenaren bidez eguneratu baitzen:

IKASTURTEA	IKASTAROAREN KODEA	HASIERA DATA	AMAIERA-DATA
2022-2023	2259CFP001	2023/02/16	2023/03/19
2022-2023	2259CFP004	2023/05/02	2023/09/22
2022-2023	2259CFP005	2023/05/02	2023/09/22
2023-2024	2359CFP001	2023/10/09	2024/02/02
2023-2024	2359CFP002	2023/10/09	2024/02/02
2023-2024	2359CFP003	2024/02/09	2024/06/02
2023-2024	2359CFP004	2024/02/09	2024/06/02

Bigarrena

1. Lortutako irakasleen kompetentzia digitalaren maila egiaztatzen duen dokumentua ematea. Heziguneko Langileen Atariko eremu pribatuan eskuratu ahal izango da.
2. Egiaztagiria Estatuko lurralde osoan balio du.

Hirugarrena

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Hezkuntza Sailaren atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, sinatzen den eguna,

Jon Mirena Labaka Intxauspe
Lanbide Heziketako sailburuordea